

ZATIKIAK KONPARATZEA

IKUSI BIDEO HAU. (AZKEN ZATIARI EZ EGIN KASURIK)

GOGORATU (Argi ez baduzue ikusten begiratu zuen liburuko 88. orrian)

Zatikia konparatzea

Izendatzaile bera duten zatikiak





$$\frac{5}{9} > \frac{3}{9}$$

Bi zatikik izendatzaile bera baldin badute, handiena zenbakitzailearik handiena duen zatikia da.

$\frac{5}{9}$ handiago da $\frac{3}{9}$ baino

Zenbakitzaile bera duten zatikiak



$$\frac{3}{4} > \frac{3}{8}$$

Bi zatikik zenbakitzaile bera baldin badute, handiena izendatzailearik txikiena duen zatikia da.

$\frac{3}{4}$ handiago da $\frac{3}{8}$ baino

Konparatu zatikiak unitatearekin

Zatikiak unitatearen parekoak, txikiagoak edo handiagoak izan daitezke.

1 EN PAREKOAK

$$\frac{9}{9} = 1$$

Zenbakitzaile eta izendatzaile berdinak dituen zatikia unitatearen parekoa da.

1 BAINO TXIKIAGOAK

$$\frac{7}{9} < 1$$

Zenbakitzailea izendatzailea baino txikiagoa duen zatikia unitatea baino txikiagoa da.

1 BAINO HANDIAGOAK

$$\frac{5}{4} > 1$$

Zenbakitzailea izendatzailea baino handiagoa duen zatikia unitatea baino handiagoa da.

1. ARIKETA: Kopiatu eta idatzi >, < edo = kasu bakoitzaren arabera.

a) $\frac{6}{9} \bigcirc \frac{4}{9}$

c) $\frac{7}{11} \bigcirc \frac{6}{11}$




e) $\frac{9}{5} \bigcirc \frac{9}{6}$

b) $\frac{6}{10} \bigcirc \frac{8}{10}$

d) $\frac{3}{7} \bigcirc \frac{3}{5}$

f) $\frac{5}{9} \bigcirc \frac{5}{6}$

2. ARIKETA: Idatzi bakoitzari dagokion zatikia eta gero konparatu zatikiak.



Zein hizki da handiena?

3. ARIKETA: Ordenatu txikitik handira zatiki multzo bakoitza.

a) $\frac{6}{9}, \frac{4}{9}, \frac{7}{9}, \frac{3}{9}, \frac{2}{9}$

b) $\frac{6}{5}, \frac{6}{3}, \frac{6}{9}, \frac{6}{2}, \frac{6}{6}$

a) < < < <

b) < < < <

4. ARIKETA: Erreparatu zatikiei eta osatu taula (Begiratu hasierako taula)

$$\frac{5}{5} \quad \frac{6}{7} \quad \frac{7}{9} \quad \frac{9}{9} \quad \frac{11}{8} \quad \frac{8}{5} \quad \frac{4}{3} \quad \frac{6}{6} \quad \frac{2}{4}$$

1 BAINO HANDIAGOAK	1EN PAREKOAK EDO BERDINAK	1 BAINO TXIKIAGOAK

5. ARIKETA: (Begiratu hasierako taula)

Kristinak txokolate-tableta baten $\frac{3}{9}$ jan du eta Ibanek tableta horren $\frac{3}{6}$ jan du. Zeinek jan du gehien?

IBANEK

KRISTINAK

6. ARIKETA: (Begiratu hasierako taula)

Karlosek poltsa bateko gozokien $\frac{5}{8}$ jan du, eta Sergiok, $\frac{5}{6}$. Biotako zeinek jan du gozoki gehien?

KARLOSEK

SERGIOK

